




piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 99. alea 2004ko azaroaren 12a



David Elizburu

Erlauntzeko
sekretuak



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea
Telf.: 943 75 25 57
Fax: 943 75 25 56
20590 SORALUZE





Gazteok antolatu eta Gaztetxea indartu!

JULEN MENDIKUTE "MINTXO"

Gaztetxian gauza batzuk planteatzen hasi gara, orain arte nere kontuok ez zebiltzan ibili behar ziren moduan. Hasteko, astearteroko asanbleak rutina hutsa izatera heldu ziren, beti genbiltzan gauza berei bueltak ematen bai paretako zuloa, garbitasuna, kontzertuen datak etab... denak gauza fisikoak. Ni aspertu xamar sentitzen nintzen, hortaz inkestaren mobidarena planteatu nuen. Inkesta egitearen arrazoiak hauetxek dira nere ustez: Gaztetxeak identitate falta izugarria zeukan, ez zeukan inñolako izaerarik ez aldarrikapenik ez ezer. Zer da gaztetxe bat? gazteok bertan egoteko lokal huts bat? ez dut uste. Gaztetxe bat gure bizitza beste modu batean eramateko baliabidea izan daiteke, hau da, pasibitatea eta konformitatea alde batera uzteko eta benetan guk pentsatzen ditugun ideia ezberdinen islada bihurtzeko tokia. Hasteko, autogestioaren ametsa, guk geuk, inongo esku sartze barik, eramango genduke oraingo moduan, baina noski, lortutako baliabideak kontzertu, konponketa eta halako gauzetarako erabili beharrean beste ekintza batzuetarako erabiliz. Gaztetxe honetatik guk ditugun arazo guztiak salatu beharko genituzke, noski asanblean oinarrituta dena, era horizontalean, eta ez ginatke aspertuko, etxebizitzaren arazoa-okupazioa, AHT-aren inposaketa, gaztetxe askoren desalotjoa, polizia etab...

Nere ustez egoera honen arrazoi nagusi-

sietako bat izan da, gaztetxe hau lortzeko Soraluzeko gazteok borrokatu behar ez izana. Gaztetxe hau belaunaldiz belaunaldi jendez aldatu delako. Oraindik garaiz gaude Gaztetxe honi izaera iraultzaileagoa emateko eta pasibitate eta konformismo honetatik irteteko, bestela Gaztetxe izan beharrean gazteleku hutsa izatera iritsiko da.

Orain hasi gara izaeraz hitz egiten, inkestak aztertu eta asanbleetan hitz egingo ditugu, ea zerbait lortzen den. Honekin lotuta, hamabostaldian edo beste edozein egunetan ere gaztetxeen izaerari buruz hitz egingo dugu, beste esperientzia batzuk ezagutuz. Hau garrantzitsua da nere ikuspuntutik, beste esperientziak ezagutzeak aberastuko gaituela pentsatzen dut eta. Orain hamabost egun esaterako, Debako gaztetxeok etorri ziren beraien gaztetxe berriko sorreraren bideoa ematera. Bideoa amaitu ostean, elkarrizketa aberasgarria izan zen bertan geundenon artean, beraien mobida eta gureak komentatuz. Horrelako geihago eginez, pentsatzen dut gaztetxe hau aldatuko genukeela eta borroka geihago planteatuko lirakekeela.

Hortaz, nire deia, gaztetxekoei gizarte hontako injustizien aurrean altxatzekoa da. Gazte asanblea batek gazte batek baino indar geihago baitu.

Gazteok antolatu eta gaztetxea indartu!

Telegrapak

Agur bero bat irakurle. Stop. kontu interesgarri asko aurkituko dozu ale honetan. Stop. kolaboraziñotik hasita. Stop. Gaztetxiaren norabidia zein izan bihar leuken galdezka. Stop. gazte bat. Stop. eta bi. Stop. eta hiru. Stop. bide berri bila. Stop. ondo dago. Stop. zerga igoera baino hobeto. Stop. baina egiza esan. Stop. ez dogu besterik merezi!. Stop. zabor eta hilerriko zergak gora. Stop. zabor gehixegi sortzen dogu eta heriotzari barre gutxiegi egin! . Stop. Agenda 21eko foruan moduan. Stop. barre gutxiegi. Stop. euskara gutxiegi. Stop. pazientzia gutxiegi. Stop. eztabaidarako tradizio gutxiegi. Stop. lore gutxiegi. Stop. ezti eta fruitu gutxiegi. Stop. erlamiño gehixegi. Stop. presa gehixegi. Stop. erlezain on bat falta!. Stop. basarritarrak-gauza asko falta. Stop. Gaztañerre Azoka Eguneko protagonista izan ziranak. Stop. herriko protagonista izan ziranak. Stop. basarritar asko falta!. Stop. Zigorren modura osasuntsu egoteko jaki naturalak falta!. Stop. baina multimedia egitasmua hor!. Stop. ttak!. Stop. enbido!. Stop. komunikazio egitura herritar baten alde!. Stop. txikixa. Stop. geuria!. Stop. Prisa eta Localia barik!. Stop. ia ba!. Stop. ia ba euskarazko telebis-tak eta interneteko web orrixak aurrera egiten daberen. Stop. azaruaren 20xan herrixan egingo diran milaka ekitaldixak bezin anitz!. Stop. bezin aberats!. Stop. Ia ba!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzguna.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Eguzkifne Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta initzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia

Dabid Elizburuk 33 urte dauzka eta berriz jaioko balitz erle jaioko litzateke. 15 Urte inguru dira lehenengo erlekumea ekarri eta aisialdiko orduetan erlezaintzari ekin ziola. Angiuzarko baserri baten dauzka erlauntzik gehienak eta orain Donostian bizi den arren, sarri joaten zaie bisitan. Urteen buruan zehaztasun handiz ezagutu ditu erleak eta eztingintza.



Zorion agurrak



Jokin Arrillaga
Urriaren 22an
Zorionak!!!
Ondo pasau eta
muxu haundi bat.
Etxekuen partez.



Manex Osinaga.
Azaroaren 21ean.
Urtebete.
Zorionak!!!!!!!
Muxu bero eta
goxo bat maittia!
Etxekuen partetik.



Lore Martinez Axpe eta Aitor Artolazabal Narbaiza
Azaroaren 6an ezkondu ziran
Apotzagan. Zorionak!!!
Zer moduz juan da Baliko bidia?
edarki ez? Besarkada haundi bat
eta elkarrekin goxo goxo bizi izan
zaitezten desiorik benetakuena!
Lagunen partetik.

MUSIKA ESKOLAREN XV. URTEURRENA

HERRI BAZKARIA

(Azaroaren 20an, Kiroldegian)

MENUA: Patalak Errioxar erara, oilasko errea letxugarekin, ijito besoa izozkiarekin. Ura, ardo beltza edo gorria, sagardoa eta kafea.

PREZIOA: 13 euro.

SALTOKIAK: Gila taberna eta Iratxo goxodenda.

jaiotakoak

Nora Mendia
Urko Alberdi Laskurain
Marcos Akizu Garzia
Lander Zubizarreta Fernandez

hildakoak

M^a Concepcion Azkarate Aseginolaza
M^a Carmen Oregi Oregi

Gutunak

Agenda 21ean eta "cigarro por la ventana?"

Mingarria eta lotsagarria da oraindik ere ekitaldi publikoetan euskararen erabilera eskatzen eta aldarrikatzen ibili beharra. Mingarriago arduradunak euskal hiztunak direnean eta lotsagarriago arduradunak alderdi abertzale bateko kide omen direnean. Are mingarriago, erakundea herri euskaldun batekoa denean eta ustez herrian eta bere baitan euskara garatzeko konpromisu ezin sendoagoak hartuak dituenen.

Halakoxea izan zen joan zen egunean Udaletxean egin zen Agenda 21aren bileran agintari eta teknikari publikoek erakutsi zuten jarrera (txostena eta aurkezpena), mingarria eta lotsagarria.

Ez zen hobeia izan egoeraren aurrean beren haserrea adierazi zuten herritarrei eman zitzaizen erantzuna; "motzago egitearren egin dugu gazteleraz bakarrik!". Jakin beharko zenukete zeuen buruok agintari eta teknikari formatu eta edukatutzat dituzuenok, ez dela beti biderik motzena errezen ibiltzen dena, biderik ederrena baizik (Artze).

Euskara ez da formalidade huts bat, ondo

edo geizki geratzeko tramite huts bat... euskara soraluzetar askoren ama-hizkuntza da eta ondorioz ofiziala. Beraz, hala ulertu nahi izanez gero, zuen kasuan euskara jakin eta erabili beharreko hizkuntza ofizial bat duzue, sentimentuez haratago, hautatu duzuen lana behar bezela egiteko ezinbestean ongi jakin eta ongi erabili behar duzuen gainontzean zuen lana oso oker betetzen diharduzuela konturatu beharko zenukete, batez ere komunikazioa helburu duzuenen.

Zuendako ez da hainbestearainokoa izan baina niretzat sekulakoa izan da. Ingurugiroaz berbetan zigarro paketea lehiotik jaurtitzea modukoa izan da.

**Egoitz Unamuno
(Soraluzeko
Euskalgintzaren
izenen)**



IKASTAROAK

Mendiko orientazioa

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko orientazioko eta GPSari buruzko ikastaroa antolatu du federatuta daudentzat. Ikastaroa azaroaren 20an eta 21ean izango da Andoainen eta helburuak: koordinatu desberdinak dituzten mendiko plano eta mapak interpretatzea, naturan GPSa kokapen eta orientazioko tresna gisa erabiltzen ikastea. Epea: plazak bete arte.

LEHIAKETAK

Topagunearen

II.Argazki lehiaketa

DEIALDIGILEA: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa. **GAIA:** Gabon zorionsuak eta urte berri ona opatzea. **BALDINTZAK:** Partehartzaileak 14 eta 99 urte bitarteko gazteak izango dira.

EDUKIAK: Argazkiak egiteko ohiko teknika, teknika digitala edo mistoa erabili daiteke. Argazki montaketa eta argazki collage-onartuko dira (fotocollage). **Formatu guztiak onartuko dira.** Gehienezko tamaina 18x24 zm-koa izango da.

EPEA: Lanak 2004ko azaroaren 19 a bitartean, ondoko helbidean jasoko dira: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa / Arlozabal 8bis. 1C / 48220 Abadiño. Bizkaia. **SARIA:** Sari bakarra egongo da: 300 euro argazki materialean. **INFORMAZIOA:** 946215116 edo gazteak@topagunea.com

LANA

Administrari Laguntzailea

Oñatiko Udalean Administrari laguntzaile bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. **Baldintzak:** eskola-garduatua, LH I edo titulu baliokidea eta euskarako 3.hizkuntza eskakizuna izatea. Epea: azaroak 29

BESTELAKOAK

Pisu berritu bat salgai Soraluzen. Sukaldea eta komunak amueblatuta. Garaje eta solairuarterkoa eta txokoa (144 m²). 615779920



FER S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Etxabe Harategia




*Euskal txahalkia
Bildotsa*

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

Zer irizten dotsazu?

Erregetxean lurrazpiko 120 aparkaleku egiteko egitasmoa aurkeztu zuen urrian Udaleko Gobernu taldeak. Herrian dagoen interesa neurtu nahian, Udalak konpromisorik gabe izena emateko zerrenda bat ireki du (15erarte) Udaletxean (dagoeneko 75 pertsona inguru daude).

Zer irizten dotsazu Udalak lurrazpiko aparkalekuak egiteko aurkeztutako proposamenari?



Gonzalo Ariznabarreta
45 urte langilia

Ez nintzan batzarrian egon baina ondo irizten jata. Plaentzia kristo bat eginda dago. Lanetik etorri eta hamar mila buelta egin bihar dira. Nik bi auto dauzkat eta garaje bat. Interesatuta banago baina entzun dotenez oindio ez dago ezer garbirik. Beste batzarren bat gehixao egitteko biharra ikusten dot.



Veronika Galárraga
34 urte langilia

Gizonak izena emon dau zerrendan. Ondo ikusten dot ideia, ze edo garajia erosten dozu edo hemen Soraluzen ezin dozu aparkatu.



Myriam Goenaga
31 urte harreragilia

Ondo ikusten dot beharrezkua dalako. Interesauta printzipioz banago baina ikusi bihar da ze baldintzetan, prezia eta abar. Nere usteetan sarbidia Saziako etxebizitzaren aldetik eduki bihar leuke adibidez.



Miguel Angel Gil
35 urte funtzionarixua

Ondo ikusten dot ze soraluzen ez dago tokirik aparkatzeko. Nik bi garaje dauzkat, orduan ez nago interesatuta. Baina ondo ikusten dot gauzak egittia, ze Soraluzen ez dago ezer eta orduan egitten dan edozer gauza ondo dago ze biharra dago.



Bixente Olaizola
73 urte jubilatua

Oso ondo ikusten dot, aparkamentu falta haundixa dago eta ikusten danez jentiak proiektu horretan interesa dauka. Nik neuk ez daukat biharrik momentu honetan.



Olga Pinilla
28 urte etxeoandria

Ondo ikusten dot ideia, gaur egun gaizki aparkatuta daren kotxiak kentzeko balio badau behintzat. Ondo ikusten dot Erregetxia peatonal bihurtzia, ze behar dira parke edo gune peatonal gehixao herri honetan. Ez nago interesatuta ze garajia daukat.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



HNOS. BENITO
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Zaborraren zergaren % 15eko igoera onartu du Udalbatzarrak

Joan zen azaroaren 3an egin zen Udalbatzarrean, hainbat Udal zerga igoetako erabakia hartu zuen Udalak. Zaborraren bilketari dagokion %15eko igoera eta hilerriko zerbitzuaren %20koa dira igoerarik azpimarragarrienak. Gainontzeko zergetan %2,6 inguruko batezbesteko igoera izan da. SAHk taldeak aurka bozkatu zuen baina gainontzeko talde guztien aldeko botuekin onartu zen igoera.

Jose Luis Badiolak kargu hartu du

Udalbatzarraren hasieran, Jose Luis Badiola EAko eledunak zinegotzi kargua hartu zuen. Kirol Batzordearen ardura hartzeko nahia duela adierazi digu.

Liburuzain eta gizarte laguntzaile lanpostuak

Udalbatzarrean, egun erdiko libu-

ruzain lanpostua desagertu eta egun osoko artxibo eta liburuzain funtzionari lanpostua sortzea erabaki zuten. Gizarte laguntzaile baten postua hutsik izendatzea ere bai, SAHen abstentzioarekin.

San Andres elkartearekin hitzarmena

Udalak San Andres elkartearekin San Andresko ermitaren ondoko egoitza beste 30 urtean auzo-elkarteko bazkideei uzten jarraitzeko hitzarmena adostu zen aho batez.

SAHren Udalbiltzaren aldeko mozioa ez zen onartu

SAHek aurkeztu zuen Udalbiltzaren aldeko mozioa ez zen onartu EAJ, EA, PSEE eta PPrean aurkako botuekin.

Sudupek alkatetza utzi du

Alberto Sudupek alkate kargua utzi zuen Udalbatzarraren amaieran.

Eztabaida Agenda 21eko gizarte foroan



Udalak eta Debegesak deituta, azaroaren 4an egin zen Udaletxeko Batzar Aretoan Agenda 21 egitasmoaren barruko gizarte foroaren lehen bilkura. Hogeirenbat herritar hurbildu ziren batzar aretora hasiera hasieratik eztabaidatsua izan zen bileran. Aurkezpenean euskararak izan zuen presentzia txikiak kexatu ostean, bertaratutakoek herriaren eta foroaren beraren gabezien inguruan berba egin zuten. Batzuei, foroaren metodologia eta landu asmo ziren edukiak itxiegiak iruditu zitzaizkien eta halaxe adierazi zuten beste batzuek herriko gabeziak zerrendatu zituzten bitartean; zakur kaken arazoa, ibaira egindako ixurkine... Urtea amaitu aurretik foroaren 2. bilkura egitekotan gelditu ziren.

Baserritarren eskariak Udalari

Azaroaren 2an Udalak baserritarrekin egindako bileran, bertaratu ziren 20ren bat baserritarrek euren kexa eta eskariak azaldu zituzten Udaleko Nekazaritza Batzordeburuari. Ondokoak izan ziren besteak beste, baserritarrek egin zituzten eskari nagusiak: baserrietarako bideak garbitzearen beharra, Udaleko Nekazaritza Batzordearen aurrekontua handitzeko premia, Arrizabalagarako biderearen konponketa, Plaza Merkatuan jarri dituzten buzoiak baserri bakoitzeko sarbidean jartzea eta Zeletako zubiko lanen atzerapena onartezina dela gogoratu zuten, bereziki San Andres eta Txurruka auzokoek.

Ikasle eta irakasle berriak AEKn



AEK Euskaltegiak ikasle eta irakasle berriak izango ditu aurtengo ikasturte berriarekin batera. Irakasle berriak eibartarrak dira eta ikasleek bezala, eurak ere gogotsu ekin diote aurten izena eman duten 16 ikasleei euskaraz era-

kusteko lanean. Astelehenean, Gaztainerre dela eta, Pil-pilean elkartekoekin batera afaria egingo dute Ibaieder elkartean. Gaztaina erreka janez, berba eta kantuan eginez euskararen erabileran trebatzea izango da helburua.

EROSLE
Kontsumo kooperatiba

315	165	395	319	475
27	669	198	89	155

Tel.: 943 75 13 45

SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Gaztañerre Azokaren IX. edizioan otar bat zozketatuko da

Aurtengo Gaztañerre Azokak ere baserri eta jai giroa ekarriko du herrira. Aurtengo azokan, 26 postu izango dira guztira; 10 nekazaritzakoak, 8 artisauek, 6 ganaduzaleenak eta 2 hegaztienak. Guztiak herrikoak izango dira parte hartzaileek hala erabaki zutelako. Berrikuntza berezi bat ere izango da aurtengo azokan. Postuetako generoarekin otar bat osatuko da eta hiru euroko erosketak egitearren jasoko diren txartelen artean zozketatuko da gero.

Urteroko legez egingo den omenaldian, Armendi baserriko Esteban Iribar Zaldegi eta Irure Hemengo Baserriko Ines Barrenetxea Arrizabalaga baserritarrak omenduko dira.

Aurtengo Gaztañerre Azokako egitaraua honakoa izango da:

9.00etan Azokaren bedeinkapena. Jarraian epaimahaikideak azokatik igaroko dira.

Danbolinean gaztainak erretzeari ekingo zaio eta Larreategi anai arrebak trikitiarekin alaituko dituzte azokako bazterrak.

10.30etan Baba txapelketaren hasiera Plaza Zaharrean (8 partehartzaille). AEKo talo postua ere zabalduko da.

12.00etan Jose Lizaso eta Agirre-ren bertso saioa eta Ezoziko Ama Abesbatzaren emanaldia.

13.00etan Azokako postu onenen sari banaketa.

Soraluzeko baserritar nagusiei omenaldia.

14:30etan Azokan parte hartu dutenen anai-arreba arteko bazkaria Ezozi Jatetxean.

14:30etan Herri babajana Kiroldegiko Frontoian.

18:00etatik 22:00etara erromeria Amaiur taldearekin.

02:30etan Irrintzi lehiaketa, gitarak airera eta lasterbeta bitxia Gaztetxean.

Badago beraz zerekin gozatu Gaztañerre egunean ere.



Boskoitxi baserritik azokara ekarriko duten kalabaza ikusgarrietako bat, gainean neskatila bat duela.

Anjel Irazabalbeitia "Txorta" hil zuteneko 10. urteurrena oroitzuz

Datorren azaroaren 20an hainbat ekitaldi antolatu dituzte Anjel Irazabalbeitia "Txorta"ren heriotzaren eta Lurdes Txurruka bere neskalagunaren zigorraldiaren 10. urteurrena dela gogoratzeko. Honakoa da prestatu duten egitaraua:

Martitzena 16

Txortan gaineko bideoa
19:30etan Gaztetxian

Eguaztena 17

Hitzaldia: "Emakumeak gartzelan" Bergarako Eukene preso ohia-
ren eskutik. 19:30etan Gaztetxian

Eguena 18

19:30etan enkarteladia Plaza Ba-
rrixan

"Txorta herriarena haiz, Lurdes
herrira orain!"

Zapatua 20

10:00etan mendi irteera Karaka-
tera. 12:00etan Txortari omenaldia
Karakaten. 19:00etan Txorta eta
Lurdesi omenaldia.

Ondoren manifestazioa
21:30etan herri afaria.

Azpimarratzekoa da azken hamar urteotan hainbat espetxetatik igaro eta gero, gaur egun Lurdes Txurruka 1200 km-tara dagoela Huelvako espetxean isolamendu egoeran. Besteak beste, aste osoan ez du ez inor ikusi ez eta inorekin hitzik egiteko aukerarik eta astean 50 minutuz bakarrikuzten diote senide edo lagunekin berba egiten; 40 minutuz bisitan eta 10 minutuz telefonoz. Elkartasun gutunak bidaltzeko-Askatasunak helarazitako helbidea honakoa da:

Lurdes Txurruka Madinabeitia
Centro Penitenciario Huelva II
Carretera de la Rivera
(21610) Huelva

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

ARRANO tabernia

Telefona 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESQ, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Eztigintzaren nondik norakoak

Dabid Elizburuk 33 urte dauzka eta berriz jaioko balitz erle jaioko litzateke. 15 Urte inguru dira lehenengo erlekumea ekarri eta aisialdiko orduetan erlezaintzari ekin ziola. Angiuzarko baserri baten dauzka erlauntzik gehienak eta orain Donostian bizi den arren, sarri joaten zaie bisitan. Urteen buruan zehaztasun handiz ezagutu ditu erleak eta eztigintza.

Lehenengo Gaztañerre azokan hasi zen eztia saltzen eta aurten ere bertan izango da, etxerako behar duenetik sobratu zaion eztia saltzeko prest. Gu, beti bezala, ezti bila ibili gara, pika hemen eta pika han, eztigintzaren nondik norakoak ezagutu nahian. Berak babesa ematen die erleei eta gero eztia erdibana egiten dute.

Zela hasi zinan honetan?

Aman basarrixan, Angiuzarren, sagar asko zeukan sartuta aittak. Erliak loren fekundaziñorako onak zirala eta... Agrarian ikastaro bat zeguala komentatu zosten beste bi plazentziarrek eta handik hasi nintzan. Lehenengo erlakumia ekarri nebana galdu egin jatan... baina poliki poliki ezagutzen jua nahiz.

Pikatadararik eta...

Bai, hasieran batez be. Pikatara batzuk de aupa! Garai txarrena udazkenian da. Urteko lan guztia dauke gordeta garbaran eta zu juaten zaranian zain zain egoten dira. Keiak distraitzen dira pikat baina astoratzen bajatzuz... taka taka. Jentia laga egin bihar izan dau pikatariak oso golpe gogorra emonda. Urtero hiltzen dira bat edo bi estatuan.

Zenbat erlauntz daukazuz?

16 Erlauntz Bergarako Angiozar auzoko Errotia baserrixan eta beste bi Plazentzian. Kaja bakoitzian neguan 5.000 edo 8.000 erle inguru izaten da eta udan 60.000 inguru.



Dabid erleen artean ibiltzeko babes erropak jantzita.

“Udazkenian hasi bihar da erlia zaintzen. Erregina ona dan begiratu, arrautzak ondo jartzen doian...”

Erlauntz bakoitzak bere erregina dauka. Tokau leike baten bi erregina egotia baina orduan kolonia banandu egiten da. Normalian gaztiena gelditzen da eta zaharrenak alde egiten dau.

Zer zainketa bihar izaten dau erliak?

Udazkenian hasi bihar da erlia zaintzen. Erregina ona dan begiratu, arrautzak ondo jartzen doian, jana laga... Oindala hogeitau urte inguru gaitz gogor bat etorri zan kanpotik, ar bat, eta ixa kolonia danak akabatu zittuan inguruan.

Oin ya ibernatzen hasten dira. Ahalik eta mobimentu gutxien egiten dabe, ba-

karririk jan eta lo, eta bero mantendu. Pelota bat egiten dira danak batuta eta txandan txandan barrutik kanpora eta kanpotik barrura juaten dira tenperatura mantentzeko. Barruan darenian jan egiten dabe. Erregina erdi erdixan egoten eta ez da mobitzen. Haura da familia ekartzeko aukeratua! ja, ja..

Eta noiz egiten dabe eztixa?

Erliak polena eta nektarra batzen dabe loratik. Aurten adibidez, maiatzerrate eguraldi hotzak egin zittuan baina behin San Isidrotan berotzen hasi eta San Juanak artian ixa bi hilabetian arranke izugarria eduki zeban. Erliak eztixa egitteko nahikua dattu hamabost egun onak loraldixan. Erlia eta kolonia oso fuerte badago nahikua da. Hasiko da sagarrakin, gero gaztainara baina sailian sailian eta oso xuabe, beste insektu batzuk ez bezala eta horregaittik da hain fekundatzaile ona. Erlerik ez balego askoz

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789

Gogortuz
Fisioterapia zentrua


Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22
Santa Ana kalea 7 Soraluze Gipuzkoa



Erleengana doanean kea botatzeko ontzia hartzen du badaezpada.



Dagoeneko batuta dauka aurtengo ezitia. Zentrifugatuz aterako du.



Dabidek urtero jartzen du bere postua Gaztañerre azokan.

“Erliak eztixa egitteko nahikua dittu hamabost egun onak loraldixan.”

fruta gutxiago egongo litzake.

Zer egiten dabe gero eztixakin?

Eurendako eztixa jana da eta sobratzen jakuena gorde egitten dabe negurako. Guk erdixa inguru hartzen dotsegu eta beste erdixa eurak jateko lagatzen jakue. Kontuz ibili bihar da gehixegi ez kentziakin bestela negua luze badoia hil egitten dira. Eta beittu! Euskeraz erlia hil egitten da pertsonen moduan eta ez akabau! Horrek adierazten dau erliak zelako garrantzixa zeukan lehen.

Lehen erle gehixago zeguan?

Bai. Lehen basarri bakoitzian erlauntz bat zeguan. Zorte onaren sinbolo zan. Arbola tronko bat jartzen zan hutsik eta barruan azukarra eta holakuak jartzen jakozen erlia etortzeko, orduan ez zan hartzen, etorri egitten zan. Lehen kultura asko zeguan Euskal Herrixan baina azkenengo ehun urtetan asko galdu da, industrializaziñuagaittik batez be. Oin hoge urte ezti dana kanpotik ekartzen zan eta erliak despreziatu egiten ziran. Oin berriz hasi da pixkat indartzen. Amerikarrak oin berrehun urte hasi ziran erlien mundua aztertzen eta gaur egun hango sistemian erabiltzen da.

Hemen inguruan lore asko topatzen dabe erliak?

Bai topatzen dabe baina lehen gehixao zeguan; paguak, haritzak, keixak... pinuak ez dauka lorerik eta eurendako da existiduko ez balitz moduan. Hemen inguruan sagar arbola asko daukagu eta gehixenbat sagarran lorari ibiltzen dira. Profesionalki dedikatzeke transumanzia egin bihar dozu.

Toki batetik bestera aldatu?

Bai. Loraldixa dagan lekura eruan erliak. Hemengo jentia negua hemen pasatzen dau, negua epela dalako eta martxo inguruan Naparruara edo Arabara eruatzen dittue, erramua, almen-drua eta loria dagan lekuetara. Kamioietan eruatzen dittue alde batetik bestera lora denporia amaitsu arte eta asko sufritzen dabe. Gipuzkoa osuan bi hiru izango dira erlietatik bizi diranak. Valentzian eta hor behealdian dare kooperatiba haundixak.

Alde haundixa dago ezti industrialia izan ala ez?

Ez. Bixak dira eztixak. Gertatzen da erliak hartzen daben loriaren arabera eztixa likiduagua dala edo kristalizatu egitten dala. Jentiarik likidua gustatzen jako eta askotan batidu egitten dabe. Kristalduak pasteurizatzen dittue eta hor bai propiedadiak galtzen dittuela. Beste kontu bat da erlieri antibiotiko larregi emoten bajakoz. Eztirik onena konfiantzakua, danakin moduan!

Aurten zenbat ezti batu dozu?

Berrehun kilo inguru. Hamabost bat

“Nik etaratzen doten eztixa oso suabia da eta argixa, fruta arbolen eta alkazian loriakin egindakua dalako.”

kilo erlauntzeko. Berrogeitamar kilo etxian jaten dittugu eta gainontzekua saldu egitten dot. Zazpi euro kilua. Dana saltzen dot. Alberdi harategixan, Gaztañerretan eta bestela zuzenian be saltzen dot.

Eta zelakua da zure eztixa?

Oso suabia eta argixa. Gehixenbat fruta arbolen eta alkazian loriakin egindakua dalako.

Gaztañerretan asko saltzen dozu?

Bai. Ehun kilo inguru saltzen dittut. Neu bakarrik egoten naiz saltzen eta horrek laguntzen dau.

Ze eritzi daukazu Gaztañerre azokari buruz?

Oso ona. Harro egoteko modukua da herriko jentia bakarrik egitia holako azoka bat. Hori ez dot beste inun ikusi. Udalak azken urtietan hartu daben erabakirik onenetakua izan dala pentsatzen jata. Herriko jentia basarritarrak oindio bizi dirala ikusten dabe. Baina lotura hori oindala urte asko egin bihar zan. Oin ixa ez dago basarritarrak, gaztiak ez dauke aukerarik basarritik bizitzeko eta zaharrak lagatzen doiaz. Zaila izango da mantentzia baina...

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko
menua eta
pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Kiru
Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 76 99 85
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Ibetondoko jazza Soraluzen Debajazz jaialdiaren barruan



Iñaki Salvador eta bere taldea.

Azaroaren 20an, zapatua, Debajazz jaialdiaren barruan, Ibetondoko Jazzaren bostgarren eta azken emanaldia egingo da Soraluzen. Iñaki Salvador musikari ezagunak eskeiniko du kontzertua herrian, 22:00etan abadetxe ko kapillan.

Debajazz Jaialdia Debabarrenean

Errabal Kultura Elkarteak bultzatuta, azaroan zehar, Debajazz jaialdiaren barruan, jazz kontzertu ugari izango da entzungai Debabarreneko hainbat herri-ritan (Mutriku, Deba, Eibar, Elgoibar eta Soraluzen). Jaialdiaren antolaketaz orain bi urte Gaztelupeko Hotsak disko-etxearen ekimenez sortu zen Errabal Kultura Elkartea (jazz musika landu eta sustatzeko helburua duen elkartea) arduratu da. Jaialdiko koordinatzailea den Jon Basauri soraluzetarrak azaldu digunez, "Soraluzen aspalditik izan da jazz musika entzuteko ohituria. Gaztelupen eta Gaztetxian jazz kontzertu asko

egin izan dira".

"Beltzek Missipi ibaiaren inguruetan sortu zuten jazza Deba ingurura heldu da. Ibetondoko Jazz."

Soraluzen Iñaki Salvador

Lehen edizio honetan jardungo duten musikariak gazteak dira baina batzuek ibilbide finkoa eginda dutenak honezkero. Teresa Zabalza Quintet, Jon Urrutia / Bruce Arkin Quartet, Victor de Diego Quartet eta Tres Hombres musikarien kontzertuen ostean, Iñaki Salvador pianojole donostiarrak (estatuko jazz musikari onenetakoak) eskeiniko azken kontzertua Soraluzen. Beltzek Missisipi ibaiaren inguruetan sortu zuten jazz musika Deba ibaiaren ertzetako herrietara iritsi da. Ibetondoko jazz deitu diote antolatzaileek.

Musika Eskolaren 15. Urteurren ekitaldiak

Azaroaren 20an, zapatua, Musika Eskolak antolatutako hainbat ekitaldi egingo dira herrian, eskolaren 15. Urteurrena dela eta. Egitaraua honakoa izango da:

Goizez:

11:00etan Kontzertuak eta kalejirak herrian zehar.

14:30etan Herri bazkaria Kiroldegiko frontoian.

Arratsaldez:

17:00etan Karaokea denendako.

18:30etan "Galtzagorri" txarangarekin kalejira.

Abesbatzaren kontzertua 20an

Azaroaren 20an, zapatua, Ezoziko Ama Abesbatzak Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua eskeiniko du. Kontzertua iluntzeko 19:00etan hasiko da herriko parrokian.

Gaztetxean heavy musika 20an

Azaroaren 20an, Lumpure, Dark Faith eta Brutal Inquisition taldeek kontzertua eskeiniko dute. Heavy musika jotzen duten taldeak dira eta sarrerak 3 euroko prezioa izango du.

Dejan Bu txontxongilo ikuskizuna 19an

Azaroaren 19an, barikua, Dejan Bu taldeak eskeinitako txontxongilo ikuskizuna izango da ikusgai Plaentzia Herri Ikastetxean (goiko eskoletan). Ikuskizunak "zein polita den Panama!" izenburupean, gaztetoendako historio bat kontatzen du. Ikuskizuna 16:30etan hasiko da, Pil-pilean Euskara Elkarteak antolatuta.

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Euskarazko multimedia egitasmoa garatzeko aukera Debarrenean

Debarreneneko 7 herritako euskara elkarteek, Mendaroko Udalarekin eta Debegesarekin batera bailaran euskarazko telebista bat eta interneteko ataria garatzeko egitasmoa osatu berri dute.

Debarreneneko 8 herrietako euskara elkarteek, bailara mailako euskarazko multimedia egitasmoa osatu dute Mendaroko Udala eta Debegesarekin batera. Multimedia egitasmoak, Debarreneneko telebista eta interneteko ataria garatzeko proposamen zehatza egiten du. Herrietako aldizkarien azpiegitura aprobetxatuz proiektua laster batean martxan jartzeko aukera eskeini dute euskara elkarteek.

Euskara elkarteak eta erakundeak elkarlanean

Debarreneneko euskara elkarteak dira multimedia proiektu honen bultzatzaile nagusiak. Eibarko "Eta Kitto", Elgoibarko "Elgoibarko Izarra", Ermuko "Euskal Birusa", Mendaroko "In Leike", Debako "Zuhatza", Soralezuko "Pil-Pilean" eta Mutrikuko "Karenka Komunikazio Elkarte" hain zuzen. Herri guztietan kaleratzen diren herri aldizkarien komunikazio azpiegituraz gain (7 herri aldizkari), elkarteek bailarako 2.000 bazkide baino gehiago biltzen dituzte euren baitan.

Oinarri horretatik abiatuta, azken hilabeteetan bailarako erakunde ugari-ekin lan egiten dute euskara elkarteek proiektuaren bideragarritasuna landu asmoz. Bereziki aipatzekoa da, Mendaroko Udala eta Debegesarekin (bailarako garapen agentzia) burututako elkarlana, bestela zailtasunez lortuko lukeen sendotasuna eta zilegitasuna eman baitio proiektuari. Mendaroko Udalak bere aldetik, Mendaro Telebista-ren azpiegitura osoa egitasmoaren eskura jartzeko prestutasun osoa adierazi du eta proiektua martxan jartzearen aldeko lanean



Debagoinean oraindela urte batzuk garatu zuten bailarako multimedia proiektua eta astekaria, irratia, interneteko ataria eta GoiTB telebista dituzte euskaraz.

*Mendaroko Udalak,
Mendaro Telebistaren
azpiegitura osoa eskeini dio
egitasmoari.*

dihardu euskara elkarteekin batera. Debegesak berriz, azken urtebete honetan, proiektuaren aholkularitza eta gainbegiratze lanetan jardun du.

**Telebista eta internet ataria
Debarrendarren zerbitzura**
Multimedia egitasmoaren helburu

nagusia, Debarrendarrei bailarako errealitatearen berri emango duen komunikazio egitura hurbil bat eskeintzea da, besteak beste, teknologia berrien sustapena, bailarako herrien arteko harremana eta euskararen normalizazioa bultzatuko dituelarik. Bailarako herritar, enpresa eta administrazioaren arteko komunikazioa sendotzera bideratutako zerbitzua ere izango da.

Proiektuaren bultzatzaileak, bailarako erakundeekin harremanetan dihardute datozen hilabeteetan proiektua garatu elkarlana bideratu ahal izateko asmo sendoarekin.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118


SORALUZE



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Gailurretik gailurrera



Zigor mendizale porrokatua da eta ordu asko ematen ditu mendian .

Azaroaren 20an Elgoibarko Morkai-ko Mendizale Elkarteak antolatuta, Karakateko Igoera egingo da 11. aldiz . Azken zazpi edizioetan Joxe Mari Fernandez "Suso" elgoibartarrak irabazi du (32'12 azkenengoan) froga eta igoerako errekorra ere berea da 29'43"rekin. Plentxiarrik onena Carlos de Cos izan zen, iaz 4. postuan amaitu zuen (33'45). Lehen aldiz, aurten, Zigor Alberdi mendizale gazteak froga horretan parte hartuko duela jakin dugu eta aitzaki horrekin elkarrizketa egin diogu. Kiroldegiko frontoian harrapatu dugu pala partidua jokatzen.

Hiri mendiko afiziñua nundik datorrik?

Txiki txikittatik jaukat. Aitta asko ibili izan dok mendixan eta neri be afiziñua sartu jostak.

Nun ibiltzen haiz?

Hemen inguruko mendixetan eta Pirineuetan behai. Juan zan urtian Alpietan izan ginduaz, Montblancen.

Zer topatzen dok mendixan?

Beste mundu bat dok. Lasaitasuna emoten jostak eta gozatu egiten juat.

Bestelako kiroletan be jarduten dok ezta?

Neri dana gustatzen jatak; igerixan, pelotan, palan, korrika, eskiatzen, bizi-

kletan... ahal dotenian ibiltzen nok.

Zela pentsatu dok aurten Karakateko Igoeran parte hartzia?

Ba beti gustau izan jatak mendixa baina oinartian ez nok enteratu Karakatero Igoeria egiten zanik. Lagun batzuk komentatu josten eta parte hartzeko gogua sartu jatak.

Urtian zihar ibiltzen haiz beste frogaren batzutan?

Aurten Elgoibarko martxan eta Hiru Haundixetan parte hartu juat. Hiru Haundixena gogorra dok. Ehun kilometro inguru dittuk egun baten. Aizkorri, Udalaiz eta Anboto artian egiten dok eta 17 ordu eta 16 minutuan egin najuan.

Aurretik Behobiakua?

Ez. Asfaltuan belaunak eta orkatilak mintzen jatazik. Gainera beste kontu bat dok eta neri mendixa gehixago gustatzen jatak.

Ze denbora egitteko asmua daukak Karakaten?

Aldapa gogorra dagok eta euri pixkat egiten bajok labandu ta...34 Minutuk behera eginda konformatzen nok.

Memorial Atxan inguruan ze eritzi?

Seguro barik ezin leike lasterketarik egin eta horretarako dirua bihar da. Pena emoten dau eta ia konpontzen dan.

EMAITZAK

Futbola

-Urriaren 30-31n
Zarautz **2** - SORALUZE **3** (Erreg.)
SORALUZE - Antoniano (Juben.)
SORALUZE - Ikasberri (kadet.)

-Azaroaren 6-7an

SORALUZE **4** - Aurrera **0** (Erre.)
Arrasate **5** - SORALUZE **1** (Juben.)
Eibartarrak - SORALUZE **2** (Kadet.)

Esku pilota

Iñaki Jauregi

Lizartzan

Olaetxea eta Txapategiren aurka
22 eta 10 galdu zuten.

Atxotegi

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan
Hernaniren aurka
22-20 irabazi zuten
Azkoitiren aurka
22-13 irabazi zuten

AGENDA

Futbola

Pedrusko - SORALUZE (Erreg.)
SORALUZE - Urki (Juben.)
SORALUZE - Zestoa (kadet.)

Pelota

Asteburu honetan
Aretxabaletan
18:00etan
Errasti anaien aurka.

Mendi irteera

Azaroaren 21ean
Deskarga - Soraluze ibilbidea.

ATLETICZALEEN BAZKARIA

Azaroaren 20an, zapatua
14:30Etan Txurruka jatetxean.
13:30Etan hasita poteoa egingo dute kalean. Txartelak 10 euroko prezioa izango dute.

**ARMENDIA
JATETXEA**



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Angel Garro Sola "Garro"

*"Plaentxian jentia kalia ikusten da; presuak, gazteria, euskara...
Eibarren baino mobimiento gehiago dago hemen!"*

Kalean nongoen geratuta Garrarekin ale hontako Kale Kantaleaneko elkarrizketa egiteko. Giro txarra dela eta, Txurrukara joatea erabaki dugu bertako frito eta txorizo mutur batzuk janaz, ardo pixkat edateko aprobetxatuz, elkarrizketa eginaz. Hor joan gara gora poliki-poliki Garroren 25 urteko Renault5 zahar baina maitean.

**Izena, edadia, lanbidia jaioterri-
xa?**

Angel Garro Sola, tailarrian laba baten, 41 urte eta Eibarkua.

Eibar? Zu ez al zara Amañakua?

Ez, Amañan bizi naiz baina Kalbetonen jaiotakua naiz.

Eibar, Amaña edo Plaentxia?

Hirurak, hiruretan egoten naiz oso gustora.

Zelakua da Garro?

Pertsadun pertsonia, musian puto amua! Jajajaja!

Eguneko momenturik onena eta txarrena?

Onena lana bukatu eta dutxa hartzerakua eta txarrik ez daola uste dot.

Bihar Gaztañerre perxia...

Kriston plana, babajana momentu gorena, juerga polita izaten da, hori daukazu ona herrixan.

Beste zeozer edukiko dogu ona ez?

Onena hori behintzat, bestalde jendia kalia lanian ikusten da, presuak, gazteria, euskara... natorren tokian ez da hainbeste mobimiento ikusten.

Egunero Amañatik Plaentxiara autoz etorrira, aparkatzeko!

Zer esan, gaizki. Eskerrak herri honetan nahiko onartzen dirala arau haustiak.

Antzerkigintzan be ibilittakua zara, entzunda dakatenez...

Bi hiru urte egin nittuan antzerkixan, gehixena inprobisaziñua, benetako antzerkixa.

Zer daka antzerkixak?

Elkartu eta txorradak eginez mundu polit eta inprobisatu baten sartzen zara. Ezer gutxikin fantasia sortu leike, adibidetzat daukazu herrixan

Bertso Begiz

*Zer esangotsa plazentziarrak
bertsotan eibartarrari,
susmagarriki gure herrixa
goratzen dabilenari,
hemen kontuak garbi azaldu
ta laga antzerkixari,
esaten duan beste miresmen
badotsak Plazentziari,
Plazentziar egin hari!*

Neko

*(doimua: Lazkao Txikiren
marrazkietakoa..)*

Angel Garro Sola.

*"Ez nintzake harrittuko
herri honetatik aktore on
pila batek urtetziatz!"*

Rkpila. Ez nintzake harrittuko herri honetatik aktore on pila urtetziak, gainera orain euskal umoria modan

da! Jajajaja!

Pilpilean...

Lehenengo inpresinua oso ona izan zan, lagun batzuk lehiaketara deitzen zerela enteratu nintzan aldizkari bat zeguala herrixan, Txurrukara bukatu genduan afaltzen.

Eskerrikasko Pilpilean, eskerrikasko Txurruka!



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Argazki zaharra



1946ko omenaldixa lau andrari

L 1946an Plaza Barrixan Hilaria Maiztegi, Felipa Uribe-Etxeberria, Salustiana Larrañaga eta Martina Unanue andreri Plaza Barrixan egindako omenaldixa da. Azaroaren 3a zan, domekia. Inguruan jende asko azaltzen da. **Lehen ilaran:** Carlos Galarraga, Anita Suinaga, X, Ignacio Alberdi (Beloki), M. Conchi Arostegi, Merche Aizpurua, Luis M. Idigoras, x, ume txi-

kia, Carmen Larrañaga, Hilaria Maiztegi Arrazcaeta, Teresa Larrañaga, Mila Iriondo, Felipa Uribe-Etxeberria Izurrategi, X, Salustiana Larrañaga Laskurain, Carmen Orueta, Martina Unanue Imaz, Jaime Aristi, Arantza Alberdi, X, Javier Sanz eta Begoña Gauba. **Bigarren ilaran:** Miguel Angel Oregi, Pedro Osa, Enrique Placencia, X, Begoña Elizgaray, M. Antonia Muñoz, Eurne Ucin, Miren Alberdi Yarza, Carmen Suárez, M. Ángeles Galarraga, Lore Alberdi, Gloria Aristi, X, X eta M. Teresa Aristi. **Hirugarren ilaran:** Burua giratuta, X, Lluch, Susana Oregi, Feliciano Terán, Maria Larrañaga, ez dira ongi ikusten, M. Dolores Izagirre, Margarita Albéniz,

Eugenio Artolazabal (alkatea), neskatua, Simón Artolazabal (epailea), Damián Cacho (guardia zibila), Pedro Elizburu (Kirueta aguazila), Vicente Altube (mikeletea), Miguel Etxabeguren (apaiza), Francisco Aracama (udaletxeko idazkaria), Galdino Galarraga (zinegotzia) Pepe Guridi (zinegotzia) eta Enrique Taapken (zinegotzia). **Laugarren ilara:** Lucio Oruesagasti, burua erdi eskutuan, Yon Iñarra, X, X, Renato Ariznabarreta, Katariñe Iñurrieta eta X. Atzekaldean: M. Pilar Oyarzabal, Olga Bolunburu, Juan Luis Leturiondo, burua aztealdera duen neska bat, Juan Gabilondo (zinegotzia) eta mutiko bat udaletxeko leihoan..

Iturria: Jabier Elorza (Udal artxiboa)

Lehiaketa



Aurreko alean...



Zenbat kilo dauka Boskoitxi baserriko kalabaza honek?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU

943 75 13 04 ra

erantzuna...
Kooperatiba ondoko etxiaren teilatuan tximinixa bat sobra zeguan.

**...eta irabazlea:
JACINTO GANTXEGI**



Deja bü
Txotxongiloak

NOIZ?

Azaroaren 19an,
arratsaldeko 14:30etan.

NON?

Plaentxia Herri
Ikastetxean

Zein polita den Panama.

Antolatzaileak:

Pil-pilean Euskara Elkarte eta Soraluzeko Udala



IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa


Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku Zeharbidea Bergara 943 76 07 84

Gaztañerre azoka 2004

Baserrria eta jaia



EZOZIA

JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE